

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

#### Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoko lanpostuen zerrendaren aldaketa onestea

Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatua) honako hau dio bere zioen adierazpenean: "Legeak sistemaren egituraketak oinarri duen muintzat jartzen ditu lanpostu zerrendak, administrazio karrerako funtsezko elementu, lansari sistemaren muinik garrantzizkoen eta, batez ere, administrazio egiturak arrazoibideratzeko eragile bilakatuz. (...) lanpostu zerrenda horiek erakundearen beharren berretako adierazpide izan behar dute beti eta horretan datza horien indarra. Ondorioz, lanpostu zerrenda horiek izaera dinamikoa dute..." Hori guztia bat dator langile publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua onetsi zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 74. artikuluan xedatutakoarekin, alegia: "Herri Administrazioek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa tresnak erabilita egituratuko dute beren antolamendua. Zerrenda horietan, gutxienez, honako hauek jaso behar dira: lanpostuen izena, lanbide sailkapeneko taldeak, hala dagokionean, eratzikita dituzten kidegoak edo eskalak, lanpostuak betetzeko sistemak eta ordainsari osagarriak".

Horiek horrela, 6/1989 Legeak honako hau xedatzen du 13. artikuluan: "Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langileen beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu zerrendak". Zehazki, lege horretako 14. artikulua, berriz, beste hau arautzen du: "Lanpostu zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan itunpeko langile finkoentzat eta behin-behinekoentzat gordetakoak bereiziz".

Halaber, 15. artikuluan xedatzen du lanpostu zerrendek nahitaez adierazi behar dituztela datu hauek: lanpostu bakoitzaren izena, atxikita dagoeneko saila edo zuzendaritza, dedikazio erregimena, lanpostuan jarduteko eskatzen diren baldintzak -haien artean hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data- eta atxikita dagoeneko talde, kidego edo eskala, edo lan kategoria. Artikulu horrek arautzen du, halaber, lanpostuak talde bati baino gehiagori esleitu ahalko zaizkiola, baldin eta haien maila tartekoa bada.

Era berean, lege horrek, 16. artikuluan, xedatzen du foru aldundietako lanpostu zerrendak eta haien egindako aldaketak dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko direla.

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 23ko 487/2019 Erabakiaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu zerrenda aldatu zen.

Lanpostuei esleitutako antolamendu egituraren, eskumenen eta eginkizunen bilakaerak lanpostu zerrenda aldatzea eta egokitzea eskatzen du.

Zehazki, lanpostu hauen atxikipena aldatzen da. Horrela bada, 54.010 eta 54.025 kodeetako administrari lanpostuak, Orientazio eta Balorazio Zentroari atxikita egotetik Informazio Bulegoari atxikita egotera igaroko dira. Bestalde, Desgaituen Arloan Pedro Asua Egoitzatik datorren 57.004 kodeko begirale lanpostua berratzikiko da, eta Gaztelako Atea Egoitzaren menpekoa izatera igaroko da.

Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoari dagokionez (bertan arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoko euskararen erabileraren normalizazio prozesua), adierazi behar da eutsi egiten zaiela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko lehengo lanpostu zerrendako lanpostuen hizkuntza eskakizunei eta derrigortasun datei.

Aurreko guztia aintzat harturik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzaileak lanpostu zerrenda aldatzeko proposamena prestatu du. Sindikatuekin negoziatu beharrekoa negoziatu ondoren, agiri hori erakunde autonomoaren administrazio kontseiluari aurkeztu zaio eta hark erabaki du Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztea lanpostu zerrendaren aldaketa onar dezan; betiere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onesten duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak 8.m) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, bere betearazpen eginkizunaren barruan, foru aldundiko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onestea, halaxe xedatzen baitu 52/1992 Foru Arauak (abenduarien 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzkoa) 8.12 artikuluan, betiere 15/1987 Foru Arauaren 9.d) artikuluan aurreikusitakoarekin lotuta (15/1987 Foru Araua, urriaren 30ekoa, jarduera ekonomikoen eta foru zerbitzu publiko deszentralizatuen kudeaketari buruzkoa).

Horregatik, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

#### ERABAKIA

Lehenengoa. Onestea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu zerrendaren aldaketa, alegia:

Berratzikitzea Orientazio eta Balorazio Zentrotik Informazio Bulegoari 54.010 eta 54.025 kodeetako administrari lanpostuak. Era berean, berratzikitzea Pedro Asua Egoitzako 57.004 kodeko begirale lanpostua Gaztelako Atea Egoitzari. Aldaketa horiek I. eranskinean jasotzen dira.

Bigarrena. Erabaki honek Foru Gobernu Kontseiluak onetsi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, nahiz eta ALHAOn geroago argitaratu.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratu eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen organoaren beraren aurrean; hori guztia honako hauek xedatutakoaren arabera: 29/1998 Legearen 46.1 artikulua (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena) eta 39/2015 Legearen 123. artikulua (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena).

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 24a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Politiken diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**

*Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria*

**ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ**